


MERKATARITZA- HITZARMENEI AURRE EGITEKO EUSKAL AGENDA

Korporazioen neurrigabeko
irabazi-gosearen aurrean,
babes dezagun bizitza



MERKATARITZA- HITZARMENEI AURRE EGITEKO EUSKAL AGENDA

Korporazioen neurrigabeko
irabazi-gosearen aurrean,
babes dezagun bizitza



*Argitalpen hau garapenerako
lankidetzaren euskal agentziaren
laguntzarekin burutu da*



1 —	Testuingurua: merkataritza-hitzarmen bolada berria, gaur egungo ofentsiba kapitalistarako ezinbesteko tresna	5
2 —	Hitzarmenei aurreko egiteko Euskal Agenda bat zehazteko beharra	9
2.1 —	Nondik sortzen da agenda hau?	9
2.2 —	Zergatik iruditzen zaigu beharrezkoa eta ezinbestekoa Agenda hau?	10
2.3 —	Zer aurkituko dugu dokumentu honetan?	11
3 —	Agenda	13
1 / Ardatza —	MERKANTILIZAZIOAREN AURREAN, BIZITZAREN IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO POLITIKAK	16
2 / Ardatza —	KORPORAZIO HANDIEN GOBERNUAREN AURREAN, LURRALDEEN ETA PERTSONEN SUBIRANOTASUNAREN DEFENTSA	28

1

Testuingurua: merkataritza-hitzarmen bolada berria, gaur egungo ofentsiba kapitalistarako ezinbesteko tresna

Kapitalismoa sekulan ezagutu ez dugun bezalako egoera batera eramaten ari da gizateria eta planeta osoa: desberdintasun-, autoritarismo- eta sostengaezintasun-egoera batera, alegia. Haatik, enpresa handiek eta haien aliatu diren erakundeek lehengo lepotik burua: ez dute etsitzen eta betiko parametroetatik egiten diote aurre egungo krisiari, hau da, korporazioen irabaziak herrien eta langile-klasearen bizitzaren gainetik jarriz, baina XXI. mendeko kapitalismo-proiektu berri bat planteatuta. Kapitalismo-molde berri horrek, aurrekoa bera baino are latzagoa eta basagoa izanik, batera elkartzen ditu erronka ekonomikoak, politikoak eta kulturalak.

Arlo ekonomikoan, merkantilizazio-eraso gogor bat izan du mundu-mailan, helburu garbi batekin: enpresa transnazionalen ekintza-eremutik kanpo ez da ezertxo ere geratu behar. Hala, digitalizazioaren eta adimen artifizialaren alorrek –biak ala biak mega-enpresa digital gutxi batzuen esku– aurrera diharduten bitartean, merkatuak sektore berrietara zabaldu dira, eta azken tantara arte ustiatzen dira irabazpide-iturri klasikoak. Horrela, merkataritza-logika globaletik kanpo zegoen guztia (hezkuntza, osasuna, ura, energia, lurra, erosketa publikoa, inbertsioa, merkataritza digitala, etab.) logika horren barruan txerta-

tzea jotzen da helburutzat. Aldi berean, koska bat gehiago estutzen dira langileak –lanaren *uberizazioaren* bidez– eta tinko blindatzen da erabat desaraututa dagoen finantza-sistema erraldoia, zeinak, zalantzarik ez, 2008an eztanda egin zuena bezalako egoera batera eramango baikaitu berriro ere.

Politikaren alorrean, erakunde publikoek gehiengo sozialen alde egiteko duten gaitasuna murriztu nahi da, eta segurtasun-kontuetara eta eskubide kolektiboen desarauketara mugatu haien egitekoa. Horiek horrela, demokrazia-formatu berri bat ari dira sustatzen, oso maila baxukoa, negozio globalak amaitzen diren mugatik harago, ez lehenago, indarrean sartzen dena. Ezerk ez du eragotzi behar merkataritzaren eta inbertsioaren fluxua: hori da konstituzional-mailara jaso nahi duten printzipioa, merkataritza-hitzarmenen inplementazioaren bidez arau juridiko eztaba daezin bihurtu, herri-subiranotasunaren kontzeptua eta herrien eskubideak kolokan jartzearekin batera.

Azkenean, proiektu basati eta erasokor hori faxismo sozialez janzten da kulturalki, eta horrek behartsuen arteko gerra batera eramango gaitu ezinbestean, klase, genero eta etnia/arraza dominazioaren kontakizuna eta praktika areagotuz. Egoera horrek, horrenbestez, etorkizun-aukera baztertzailak baino ez dizkiugu eskaintzen, pribatutasunaren, merkatuaren eta korporazio-ezaugarrien balioak muinean txertatuta dituzten aukerak, hain zuzen.

Azken batean, hau da helburua: merkatu globalak eta enpresa handiek dituzten oztopo geografiko, politiko eta sektorial guztiak erasitea, hartara de factoko gobernu bihur daitezten. Kapitalismoaren eta demokraziaren arteko oreka zaila izan da beti, baina orain demokrazia belauniko jarri da, behin betiko, kapitalismoaren aurrean, horrek bizirik iraun ahal izan dezan. Eta merkataritza-hitzarmen bolada berria da, hain zuzen, enpresa handien de factoko gobernu hori eta enpresok sustatzen duten konstituzio ekonomiko global hori taxutzeko tresna nagusietako bat. Horretarako:

1 Nazioarteko merkataritzaren definizio nabarmen zabaldu bat proposa-tzen du, tratatu guzti-guztietan txertatua dagoena: inbertsioa, zerbitzuak, erosketa publikoa, datuak, finantzak, ondasun naturalak, berrikuntza, eta abar. Logika komertzialaren barruko osagaitzat jotzen dira jada denak; hau da, joko demokratikotik kanpo daudela irizten da.

2 Printzipio edo manamendu korporatibo batzuk inposatzen ditu, zeinek, piramide juridikoaren erpinean kokatuta, izaera konstituzionala ematen

baitiote eskala globaleko merkantilizazioari, herri-subiranotasunaren gainetik kokatzeraino. Hauek dira printzipio horietako batzuk: enpresa handiek merkatutako sarbide librea izatea, inbertsioek lehentasuna izatea agindu demokratikoen aurretik, eskubideen alorrean araudiak beherantz harmonizatzea, gobernu-erabakietan alderdi anitzeko esku-hartzeak egin ahal izatea eta merkantilizazio/pribatizazio-prozesuak inola ere lehengoratu ezin izatea.

3 Konbergentzia arautzailea abiarazteko egitura berriak sortzen ditu, eskubide kolektiboak beherantz bateratzearen alde jadanik badauden erakundeei gehitu beharrekoak. Lan, ingurune, gizarte eta osasun alorreko legediek, neoliberalismoko hamarkada luzeek alderik alde zeharkatuek, gogotik jasan beharko dute orain ia hitzarmen guztietan sartuta dauden egitura berri horien oldarra. Egitura horiek, beren pisu politiko handia baliatuz, nahieran moldatuko lituzkete arautegiak, muturreko lehiakortasun-testuinguru batean merkataritza- eta inbertsio-fluxua errazte aldera, eta langileen eskubideak desarautzeko eta muga-zergen hesiak eta muga-zergez bestelakoak kentzeko dinamika baten mesedetan.

4 Erabat instituzionalizatzen du justizia pribatizatu hau, hainbat arbitraje-auzitegi mota baliatuz, inbertsoreen eta estatuen arteko auziak

ebazteko. Hala, enpresa transnasionalek zirkuitu publikotik kanpo diharduen justizia bat dute beretzat, beren interesak edota irabaziak (lehengoak, oraingoak eta are etorkizunekoak ere) kaltetuak izanez gero erakundeak salatzeko aukera –inola ere ez alderantziz– ematen dien justizia propio bat, arautegiak eta erabakiak herriaren aginduari eta logika demokratikoari erantzuten dioten edo ez alde batera utzita.

Dena lotua eta ondo lotua. Beraz, merkataritza-hitzarmenek, oraindik indarrean dauden minimo demokratikoak amaitutzat jotzen dituen erasoaldi baten gidari gisa, gure bizitzan gainean pausatzen dute XXI. mendeko kapitalismoaren proiektu berria. Horiek horrela, guk herrietatik galgarik jarri ezean, horrek guztiak gehiengo sozialetan eta gure planetan izango dituen inpaktu negatiboak beldurgarriak izango dira oso:

— Oraindik komuna eta/edo publikoa dena merkantilizatuko du, eta zerbitzu publikoak (osasuna, hezkuntza, mendekotasuna), energia, ura, lurra, basoa, haziak eta abar kenduko dizkigu, guztion ongizatea ez baizik eta enpresa handien irabaziak maximizatzea helburu duen logika bati jarraituz.

— Sistemaren egiturazko sostenegaezintasuna handituko du, kolapso ekologikoa are gehiago azkartzea eraginez. Egoera horri lotutako gertaeren artean, honakoak aipa daitezke: klima-aldaketa areagotu egingo da (baliabide fosil urrien erabilera intentsiboa); eskariaren eta oinarri energetiko-material erabilgarriaren arteko desoreka gero

eta handiagoa izango da; gizarte- eta ingurumen-arazoen eragindako gatazkak areagotu egingo dira; eta erakundeek nekez bideratu ahal izango dituzte hain beharrezkoak diren —baina eskala globaleko merkataritzaren aldarean sakrifkatuak izango diren— politika alternatiboak eta trantsiziokoak, haien ahalmena arras mugatuta geratuko baita.

— Desgovernua ekarriko du logika demokratiko batetik, hain zuzen ere inoiz baino estrategikoagoa denean hura, erronka global larriei aurre egiteko (klima-aldaketa, energia-iturri fosilen agortzea, desberdintasun sozialak, migrazioak, etab). Nabarmen areagotuko du nagusitasun mota ezberdinen intentsitatea (klase-, genero-, arraza/etnia-nagusitasuna). Hala, ondasunak eta lurraldeak kentzen dizkie herriei; zerbitzu publikoak ixten ditu; enplegu-baldintzak kaskartzen ditu, soldatapeko lanaren esplotazioa areagotzeaz gainera; mendekotasun-eredu gisa zurkaizten ditu zorra eta kreditua, beste krisi bat lehertzeko aukeraren aurrean gizartea beldurtzeaz gainera; merkantilismoaren lehentasuna sustatzen du, baina eremu horren prekarizazioak bizitzaren erreproduktzioarako ezinbestekoak diren etxe- eta komunitate-eremuen erantzukizuna indartzea dakar berez, eta horrek areagotu egiten du nagusitasun patriarkala; kontaketa kolonialak inposatzen ditu, zenbait potentziaren aliantza korporatibo-militarrerako

botere-zentralizazioarekin bat jotuz; eta gerra soziala, amaigabeko gerra eta gisako kontzeptuak zabalitzen ditu, indarkeria hetero-patriarkala, koloniala eta klasekoa ohiko tresna gisa erabilia.

— Eta, azkenik, sistematik kanpora egotziko ditu sektore asko, gero eta gehiago. Sistemak —lurraldeak eta ondasun naturalak kontrolatzeko apustu horretan— egiturazko arazo bihurtzen du desjabetze bidezko metaketa, eta, ondorioz, pertsonak eta herriak egozteko praktika orokortu egiten da kapitalismoaren erreproduktzioarako baliabide estrategiko gehien dauden tokietan. Gainera, kontuan izan behar da egungo gatazka gehien atzean klima-aldaketa dagoela, eta horrek migrazio handiak eragiten dituela eskubiderik eta herritartasunik gabeko eremu berrietan abandonatuta geratzen diren pertsonen artean. Ez dugu ahaztu behar, ezta ere, adimen artifizialak eta robotizazioak lan-merkatutik kanpora egotziko duela jende asko; azkenik, halako lotura bat ageri da hitzarmen-bolada berri honen eta feminizidioaren, gorroto-delituen gorakadaren eta gisako fenomenoaren artean.

Ez dugu, beraz, hitzarmen-bolada berri horri —eta berak babesten eta gidatzen duen sistemari— aurre egitea beste erremediorik. Auzi honetan ez dago erdibiderako aukerarik, hitzarmenak gizarte-klausulen, genero-klausulen edo bestelakoren bidez hobetu edo erreforma daitezkeela pentsatzea ameskeria hutsa baita; aurrez aurreko enfrentamendua da aukera bakarra. Euskal Herriak, munduko gainerako herriek bezala, enpresa handien gobernuaren erasoak jasango lituzke eta zeharo murriztuta

ikusiko luke politika eraldatzaileak sustatzeko bere subiranotasuna eta gaitasuna, baldin eta politika horiek negozio globalen interesen eremuan sartuko balira. Ez dago euskal erakunderik —udalerrri, aldundi, erkidegorik— merkataritzaren definizio berriaren, korporazioen aginduen, konbergentzia arautzailearen eta arbitraje-auzitegiaren arteko ekintza itunduari ihes egin diezaiokkeenik —modu batera ez bada, beste batera izango da, edo batera baino gehiagora, enpresa handiek hala nahi badute—, eta hori dela eta erabat baztertzen dugu bai hitzarmenak aukera on bat direlako asmoa, bai auziak, estatuen artekoa izanik, guri eragingo ez digulako ideia. Izan ere, Estatuen tresna juridiko eta politikoak eskura ez ditugun elean, desregulazio sozial eta antidemokratikorako estrategia hauei aurre egiteko daukagun gaitasunaren gaineko inpaktua handiagoa izan daiteke.

Hortaz, hitzarmen-bolada berri horri aurre egingo dion euskal bide bat proposatzen dugu: internazionalista —herriak bizitzaren alde, kapitalaren kontra antolatuz—, inklusiboa —gehiengo sozial handiek eta enpresa txiki, ertain eta ekonomia solidariokoen amalgamak osatzen duten subjektu-aniztasuna bilduko dituen— eta alternatiboa —merkataritza-hitzarmenen kontrako arbuio erabatekoa, batetik, eta esperientzia eta prozesu eraldatzaileen aldeko bulkada adoretua, bestetik, uztartuko dituen— .

2

Hitzarmenei aurreko egiteko Euskal Agenda bat zehazteko beharra

2.1.

Nondik sortzen da agenda hau?

Lehenik eta behin, esan beharra dago dokumentu hau Euskal Herriko hainbat erakunde sozialen arteko elkarlanaren emaitza dela¹, gorago azaldutako egoeren analisiarekin eta hitzarmen horiek gure bizitzan eta lurraldeetan izaten ari diren eta izango duten inpaktuen errealitatearekin bat etorrira egoerari aurre egiteko proposamen hau prestatzeko lanean hasiak garen hainbat erakunderen emaitza, alegia. Guk agenda deitu diogun proposamen horretan, Euskal Herriko administrazioei zuzendutako eskakizun sozial batzuk identifikatu nahi izan ditugu, modu sintetiko eta argian. Hiru administrazio-mailatan (udala, foru-aldundia, autonomia-erkidegoa) identifikatu ere: izan ere, hirurek jasango dute hitzarmen-bolada berri horren eragina, eta, gainera, hirurek dute, salbuespenik gabe, aurre egiteko ahalmena. Hala, dokumentu honen helburua hirukoitza da:

- Merkataritza-hitzarmenek gure lurraldean duten inpaktuei buruz daukagun ezagutza zabaltzea.
- Hitzarmen horiek Euskal Herrian gauzatzea eragozteko ekintzak identifikatzea eta eragiten dituzten inpaktuak salatze bidean laguntzea.
- Euskal Herriko administrazioei gure lurraldearen alde eta bertan bizi garen guztion onaren eta ongizatearen defentsan paper aktiboagoa joka dezaten eskatzea, merkantilizazio-estrategiei eta hitzarmen horiekin areagotu nahi den burujabetza-galerari aurre egitearren.

Esan beharra daukagu ezen, hitzarmen horiek zein aurre egin nahi dien agenda hau irakurtzeko orduan, ez ditugula erdian jarri nahi izan ez hitzarmenek barneratzen dituzten

1. ELA Sindikatua, LAB Sindikatua, STEILAS Sindikatua, Bizilur, Munduko Emakumeak, Mundubat, Ekologistak Martxan, Uraren Kultura Berria Fundazioa, Ipar-Hegoa Fundazioa, Colectiva XXX, OMAL-Bakea eta Duintasuna

artikuluak ez haietako bakoitzak hartzen duen forma espezifikoa. Gure ustez, badira beste testu batzuk aldagai posible guztiak eta hitzarmen bakoitzaren izaera espezifikoa sakon aztertzen dituztenak, eta ez da, inondik ere, *expertise* maila hori erakustea gure agenda honen helburua. Hitzarmenok zer lortu nahi duten eta nola lortu nahi duten jakin nahi dugu guk, gainera bada ere, modu sintetiko eta argi batean. Era berean, geure proposamenak azaldu nahi ditugu, klausula, artikulua eta abarren nahas-mahas horretan galdu gabe; izan ere, askotan, halako inpotentzia-sentsazio bat eragiteko baino ez dute balio izaten horiek denak, guri “ezin dugu ezer egin” sinestarazten saiatzeko. Aitzitik, agenda honekin agerian utzi nahi dugun bezala, asko dago egiteko eta egin beharra dago, gaurtik bertatik hasita.

2.2.

Zergatik iruditzen zaigu beharrezkoa eta ezinbestekoa Agenda hau?

Gure ustez, Hitzarmenei aurre egiteko Agenda hau beharrezko eta ezinbesteko tresna bat dugu, honako arrazoi hauengatik:

a) Hitzarmenok inpaktu zuzena izango dutelako gure lurraldetan eta gure bizitzetan. Dokumentu honen lehen puntuak azaldu dugun bezala, eskura dugun informazioak garbi erakusten digu tresna juridiko/politiko horien helburu nagusia enpresa transnazionalen boterea blindatzea dela, enpresen

interesak lehenetsiz eta erabaki-prozesuak publikotasunetik, administrazioetatik eta herritarrengandik urrunduz. Ildo horretan, tresna horiek merkatua zabaltzea sustatzen dute, maila lokalean zein globalean, gero eta esparru gehiagoren merkantilizazioa bideratuz (lurra, ondasun naturalak, zerbitzuak...) eta herritarren eskubideak murriztuz. Lurraldeak, beraz, botere korporatiboak bere eredia bizitza indibidual eta kolektiboen zein planetako bizitzaren kontura garatzeko erabiltzen duen konkista-eremua dira. Hitzarmenak urrutiko tokietan negoziatu eta zehaztuko dira, agian, baina haien inpaktuak argi eta garbi sumatu ahal izango ditugu gure eguneroko bizitzan. Hitzarmenak, beraz, tokian tokiko, eskualdeko eta nazioarteko jardunetik aurre egin beharreko tresna bat dira. Eta hauxe da borroka horretan sartzeko unea.

b) Administrazio publikoek, beren rola betetz, herritarren ongizatea bermatu behar luketelako, botere korporatiboaren interesen aurrean. Horrek zera esan nahi du: garbi, zorrotz eta gardentasunez informatzea hitzarmenbolada berri honen balizko inpaktuez; lurraldeak kapital transnazionalaren interesetatik babestea; eta hitzarmenen kontrako borrokari eustea eragina/presentzia dugun autonomiaz gaindiko esparru guztietan.

2.3.

Zer aurkituko dugu dokumentu honetan?

Lehenik eta behin, bi ardatz nagusi ezarri ditugu, hitzarmenen helburuak zein haiei aurre egiteko aukerak laburbiltzen dituztenak. Ardatz horietako bakoitzean, hainbat jarduera-lerro identifikatu ditugu (sei, guztira), hitzarmen-bolada berri honen kontrako borrokan esangura bereziko proposamen politikoak zehazten dituzten eta hiru administrazioentzat baliagarriak izan daitezkeen lan-ildo batzuk irekitzen dituztenak. Hirugarren maila batean, lehentasunezko jarduera-lerro horiei jarraituz, ekintza espezifikoago batzuk identifikatu ditugu, eta jarduera-lerro bakoitzean aurrera eraman daitezkeen ekintzetako batzuen aukeraketa egin dugu: Euskal Herriaren esparru instituzionala gu guztion onaren alde eta herri gisa ditugun subiranotasunen alde (politikoa, feminista, elikadura mailakoa, energetikoa, etb.) interpelatzen duten eraginbide posibleen adibide on bat, betiere ikuspegi inklusibo eta internazionalista batetik begira.

«Ardatz / jarduera-lerro / ekintza espezifiko» logika horren arabera egituratu dugu, beraz, elkarlanaren emaitza den agenda hau. Hala, merkataritza-hitzarmenen aurkako esparru estrategikoetatik abiatuz, lehentasunezko proposamen politiko batzuk posizionatu ditugu, noizbait ere ekintza zehatzak egiteko bidea emango dutenak. Nolanahi ere, hitzarmenak etengabeko eraikuntzan dauden tresnak diren neurrian, haiek borrokatzeko agenda batek berrikuntzetara irekita eta doikuntzak onartzeko prest egon behar du beti.

3

Agenda

Bi ardatz handiren inguruan egituratu dugu agenda hau; gure ustez, ardatz horiek modu egokian erantzuten diete hitzarmen horien bi helburu handiei.

Lehen helburua merkantilizazio-ekintza gehiago eta hobeak egitea da. Merkantilizazioa hitz gako bat da hitzarmenok ulertzen saiatzeko orduan: merkatuan sartzen denari zabalkundea ematea esan nahi du (privatizazio gehiago, esparru gehiagotan), enpresa handiei gero eta baldintza hobeak eskainiz. Hala, botere korporatiboak gehien gutzizatzen dituen alorren artean gizakien oinarritzko beharrekina loturikoak daude (hezkuntza, osasuna, etxebizitza, elikagaiak, zainketak), eta publikoa eta komuna denarekin loturikoak (gizarte-zerbitzuak, ondasun naturalak eta energia). Beste xede batzuk ere badira: merkantilizazio-prozesua ezagutzaren eta datuen esparrura zabaltzea; dagoeneko merkantilizazio-prozesu batean sartuta dauden esparruen privatizazio-logiketan sakontzea; finantza-merkatuen liberalizazioan sakontzea; eta lanari gainbalio handiagoa ateratzea eta enplegu-baldintzak kaskartzea.

Hitzarmenek tresna hauek dituzte horretarako:

- Enpresa handien merkaturako sarbidea eragoz dezakeen edozein traba

kentzea, izan muga-zergak edo izan beste edozer (hesi fitosanitarioak, lan baldintzak...).

- Arauak beherantz bateratzea, baita lan-estandarrei eta lan-eskubideei dagokienez ere.
- Araudia ad hoc lantzea, botere korporatiboari merkatuetarako sarbidea bermatzearren.
- Privatizazioak itzulerarik gabeko puntu bilakatzen jarraitzea: adibidez, bazterketa-zerrenda negatiboekin lan eginez (Hitzarmenetan berariaz aipatzen ez diren arlo guztiak privatizagarriak izango dira), eta/edo sinatutako Hitzarmen bakoitzeko “zero une” berriak izendatuz, handik hara, privatizazio-kontuetan, aurrera —baina inola ere ez atzera— egiten jarraitu ahal izateko.

Bigarren helburua hau da: korporazio handien gobernu bat de facto ezartzea. Horrekin, erabaki-prozesu “demokratikoak” eraldatzea eta enpresak erdigunean jartzea lortu nahi da. Eredu horretan, nazioarteko merkataritza eta

hura arautzen duten legeak eztabaida politikotik kanpo geratzen dira: Negozioak amaitzen diren tokian hasten da demokrazia. Erabakiguneak gero eta urrutiago daude herritarrengandik eta tokiko administrazioetatik. Enpresa transnazionalak eragile hegemoniko bihurtzen dira administrazioen begietan, eta haien interesen arabera xedatzen dituzte politika publikoak, dela aitortza bilatzen dutelako, dela presionatuta daudelako. Eskubideak gero eta gehiago murrizten dira, bereziki gauza publikoetan parte hartzearekin edo eragitearekin loturikoak. Horren helburua administrazio publikoen eta herritarren arteko harremana areago hondatzea da —hori posible bada behintzat—, eta publikotasunak erreferentzia-esparru izateari uzten dio halakoetan. Gainera, molde autoritarioko politikak zehazten dira —kanporatze politikak eta “behartsuen arteko gerra” delakoa areagotuz— eta informazioa eta ezagutza gero eta gehiago pribatizatzen dira.

Hitzarmenek honako baliabide hauek dituzte horretarako:

- Enpresa transnazionalentzat ad hoc prestatutako justizia bat sortzea, arbitraje-auzitegien gisako organoen bidez pribatizatua.
- Erabakiak hartzeko gune eta egitura berriak sortzea, demokrazia ordezkagarria aldatzeko gaitasuna dutenak, sortzea eskualde- eta mundu-mailako esparruetan, herritarrengandik urrunduz.

Halaber, esan beharra dago Europar Batasunak gure lurraldean aplikatzen duen gobernantza neoliberalaren adierazpen nagusietako batzuk borrokatzera bideratutako proposamenak ere txertatuko ditugula gure agenda honetan.


Gure ustez, Europar Batasuna merkataritza-hitzarmen hiper-garatu eta hiper-bihurritu bat baino ez da funtsean, aipatutako bi ardatzekin —hau da, merkantilizazioarekin eta gaitasun demokratiko subiranoen ezeztapenarekin— lotura zuzena duten parametro batzuk ezartzen dituen. Hori dela eta, ezin dugu aipatu gabe utzi arkitektura komunitario horrek Euskal Herrian izango lituzkeen ondorioei aurre egiteko erresistentzia-proposamenak.

Honen aurrean, euskal administrazio publikoek hitzarmen horien helburu eta tresnak geldiarazteko betebeharra eta erantzukizuna daukate, erabakitze subiranorako gaitasuna abiapuntu izanda bizitzaren iraunkortasunerako politikak sustatzeko jarduketak garatuz merkantilizazioaren aurrean; eta lurraldeen eta pertsonen subiranotasuna babesteko jarduketak, berriz, korporazio handien gobernuaren aurrean. Jarduketa horiek honako helburu hauek izan beharko lituzkete, gutxienez:


- Merkantilizazio-logikak eta haien eragile hegemonikoak kontrolatzea eta arautzea.
- Pribatizazio-prozesua lehengoratztea eta publiko bihurtzea.
- Lan-baldintza duinak babestea.
- Desobeditzea eta herritarren parte-hartzerako espazioak zabaltzea.
- Beste administrazio batzuekin itunak egitea.
- Ezagutza kritikoa sortzea eta herritarrak jakinaren gainean jartzea.

Jarraian azalduko ditugu proposamen horiek, baina hona hemen denak, grafiko batean laburbilduta.

1 / Ardatza



2 / Ardatza



1 / Ardatza

MERKANTILIZAZIOAREN AURREAN, BIZITZAREN IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO POLITIKAK

Jarduera-lerroa 1.1.

Lurraldea, ondasun naturalak eta pertsonak merkantilizazio-logiketarik babesteari lehentasuna ematea

Ekintza 1.1.1.

Kontratazio, inbertsio eta erosketa publiko guztietan, gizarte- klausulak, lan-klausulak, ingurumen-klausulak... ezartzea

Ekintza 1.1.2.

Erosketa eta inbertsio publikoko kontratuen partzelazio-estrategia bat garatzea

Ekintza 1.1.3.

Zerga progresibotasun handiago bat sustatzea. Tasak handitzea eta salbuespenak kentzea sozietateen gaineko zergan

Ekintza 1.1.4.

Inbertsioak erakartzeko politika atzera botatzea

Ekintza 1.1.5.

Kanpoan diharduten euskal enpresek giza eskubideen nazioarteko esparrua errespetatzen dutela bermatzea, jarraipen-sistemak eta, hala badagokio, zigor-sistemak ezarriz

Jarduera-lerroa 1.2.

Erdi edo erabat pribatizatutako esparruak berreskuratzeko eta publiko bihurtzeko prozesuetan aurrera egitea

Ekintza 1.2.1.

Sektore estrategikoen jabetza eta kudeaketa publiko/komunitarioa bermatzea balio-kate osoan

Ekintza 1.2.2.

Alternatiba publiko/komunitarioak sustatzera bideratutako aliantzak sendotzea eta erakundetzea

Jarduera-lerroa 1.3.

Lan-baldintza duinak bermatzea, ahalegin berezia eginez baldintzarik kaskarrenetan dauden sektoreetan, hala nola zainketa-lanenean

Ekintza 1.3.1.

Lan-harremanetarako Euskal Esparru bat zehaztea, hitzarmen-bolada berriaren eraso desarautzailearen aurrean lan-eskubideak eta hitzarmen kolektiboak erdigunean jartzeko

Ekintza 1.3.2.

“Ekonomia berria” delakoaren alorreko enpresak, beren negozio-eredua “autonomo faltsuaren” irudian oinarritzen dutenak, euskal udalerrietan finkatzea eragozteko araudiak bultzatzea

Ekintza 1.3.3.

Zainketak publikatzea eta demokratizatzea, zaintza-lanen desmerkantilizazio- eta desfamiliarizazio-estrategiak lortzeko bidean aurrera eginez

Jarduera-lerroa 1.1.

Lurraldea, ondasun naturalak eta pertsonak merkantilizazio-logiketatik babesteari lehentasuna ematea

Lehen jarduera-lerro honen bidez, dei egiten diegu erakunde publikoei kapital transnazonala Euskal Herrian nagusitzea eragozteko

tresnak ezar ditzaten. Euskal administrazioek bestelako ekonomiak sustatzeko estrategia eta tresna propioak eraiki eta bultzatzeko betebeharra daukate, gure ekonomia-egitura korporazio handien “radarraren” eragin-eremutik kanpo mantenduz. Nola? Bada, adibidez, gure eskubideen aldeko politika publiko-administratiboak bultzatuz eta transnazonalizatu gabeko ekonomia- eta gizarte-eragileentzako (azaldu dugu nolako inpaktua izan dezaketen subiranotasunean eta ongizatean) esparruak zabalduz.

Hala, hitzarmen horiek gure lurraldean aplikatzeko aukera murriztuta geratuko litzateke; izan ere, hitzarmen horien lehentasuna korporazioei errentagarritasun- edo irabazi-marjina handiko sektoreetan sarbidea eskaintzea izan ohi da. Horretarako, zergalarreko neurriak hartzea, erosketa eta inbertsio publikoa sustatzea eta inbertsioak erakartzeko politika indartzea proposatzen dugu. Neurri horiek, behar bezala erabiliz gero, oso eraginkorrak izan daitezke arautegien, klausulen eta beheranzko bateratze-mekanismo horien guztien azken helburua oztopatzeko, hau da, botere transnazionalari eta haren interesei lurralderako sarbidea eragozteko.

Hona hemen jarduera-lerro hori gauzatzeko aurrera eraman daitezkeen ekintza batzuk:

1.1.1. Ekintza

Kontratazio, inbertsio eta erosketa publiko guztietan, gizarte-klausulak, lan-klausulak, ingurumen-klausulak... ezartzea

Muga-zergez bestelako hesiak bere estrategia-aren erdigunean jartzen ditu hitzarmen-bolada berri honek. Hori dela eta, enpresa handiei merkaturako sarbidea errazteko mekanismoak proposatzen ditu, merkatuaren funtzionamendua desitxuratzen duten “trabak” —gizarte-, lan-, ingurumen-klausulak eta gisakoak; edota kontratazio eta erosketa publikoa egiterakoan, atzerriko enpresak sustatu beharrean tokiko ekonomia-egitura, lurraldeko kooperatibak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeak sustatzea helburu duten klausulak— ezabatzen dituztenak. Bestalde, euskal administrazio publiko batek gizarte-, ingurumen-eta

lan-klausulak ezartzearen alde edo enpresa mota jakin baten alde hartutako erabakia enpresa transnazionalek berek oztopa lezakete gero, arbitraje-mekanismoetara (hots, justizia pribatizatura) joz. Izan ere, gisa horretako baldintzek agian irabaziak lortzeko aukera murriztuko dutela pentsa lezakete enpresek, batez ere inbertsioen “segurtasun juridikoaren” argudioa baliatuz zalantzan jar daitezkeen geroagoko neurriak badira horiek.

Hori dela eta, ezinbestekoa iruditzen zaigu euskal administrazioek neurri horien aldeko arauak ematea hitzarmenok indarrean sartu baino lehen. Honen helburua enpresa handiek eskura izango dituzten baliabideak era nabarmenean aniztuko diren eta, aitzitik, erakunde publikoen gaitasunek murrizketa zorrotza pairatuko duten egoera bati aurrea hartu ahal izatea da. Ezinbestekoa da, beraz, euskal lurraldeko hiru eskumen-mailetan (udala, forualdunia, autonomia-erkidegoa), kontratazio eta erosketa publikoko prozedurak arautzen dituzten prozedurak aldatzea, hau da, gizarte-, lan-, genero- eta ingurumen-klausulak sistematikoki txertatzea eta bizitzaren eta guztion onaren zerbitzura egongo den beste ekonomia baten alde diharduten enpresei laguntzeko neurriak hartzea: hurbileko erosketaren aldeko klausulak, berdintasunaren aldekoak, ingurumen-inpaktuari buruzko txostenak egitera derrigortzen dutenak, enplegu-kalitatearen gutxieneko estandarrak bermatzen dituztenak, enpresa txiki eta ertainak, kooperatibak eta Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeak lehenestearen aldekoak, etab.

Horrek guztiak gutxieneko estandar batzuk eta eskubide batzuk behar bezala beteko direla bermatzeko balio digu, ekonomia-eredu ez-transnazonalizatu bat, hau da, enpresa handiek —hitzarmen-bolada berriak sustatzen duen merkantilizaziorako joera baliatuz— sarbide gisa erabiltzen dituzten espazioak eta zirrikituak ahalik eta gehien estutuko dituen eredu bat bultzatzeko.

1.1.2. Ekintza

Erosketa eta inbertsio publikoko kontratuen partzelazio-estrategia bat garatzea

Erosketa eta inbertsio publikoko kontratuak hitzartzeko lehiaketa publikoetan, partzelazatiketa egin behar da, hau da, tamaina txikiko ataletan edo unitateetan zatitu behar da lizitaziopean dagoena. Korporazio handiak saritu ordeztu —kasu askotan, haiek dira kontratu handiei erantzuteko gaitasuna duten bakarrak—, lurraldean errotuago dauden eta gehiago inplikatzeko diren beste eragile ekonomiko batzuk saritzea da kontua. Horrela euskal administrazio publikoarentzat funtsezkoak diren jarduera-esparruak (horietako asko, uraren eta hondakinen kudeaketa adibidez, sektore estrategikoetara eta oinarritzko zerbitzuen hornidurara lotuak) babestu ahal izango liriateke kapital transnazonal handiaren eraginetik.

Gure lurraldean diharduten administrazioen praktikara eramanda, egungo dinamika errotik aldatzea esan nahiko luke horrek, sektore eta zerbitzu mota horretako kudeaketa-organoak lurralde-unitate gero eta zabalagoetan metatzea bait da joera nagusia, Bizkaiko

uraren kudeaketaren kasuan gertatzen ari den bezala: Bilbao Bizkaia Uren Partzuergoa, adibidez, eskualde-mailako partzuergoak (Busturdialdea, kasu) xurgatzen hasia da. Hala, ura kudeatzen duten organismoen jarduereskala handituko lukeen balizko kontzentrazio batek erakargarriago bihurtuko luke sektore hori kapital transnazonal handiaren begietara, eta, aitzitik, kudeaketa partzelatu eta zatikatuago batek —eta hortik sortuko liriatekeen kontratuek— korporazio handien arloarekiko interesa gutxitzea ekarriko luke ondorioz.

1.1.3. Ekintza

Zerga progresibotasun handiago bat sustatzea. Tasak handitzea eta salbuespenak kentzea sozietateen gaineko zergan

Zerga-politika oso tresna baliagarria da, funtsezkoa, botere korporatiboari euskal ekonomia- eta gizarte-egituraren sakontzea eragozteko. Zerga-politika da korporazioek xantaiarako daukaten tresna nagusia, ezartzen diren lurraldeko administrazio publikoei beren baldintzak inposatzeko orduan. Hala, behin zerga-salbuespenak, zerga-tasen beherapenak eta gisako beste neurri batzuk aplikatu ondoren, irabaziak handitzea eta foru-lurraldeetako zerga-bilketan beren partaidetza txikitzea lortzen dute xantaia horren bitartez. Horren garrantzia kontuan harturik, gure lurraldean merkataritza-hitzarmen bat indarrean sartuko balitz, araudiak beherantz harmonizatze mekanismoen, inbertsioen segurtasun juridikoaren inguruko argudioen eta arbitraje-auzitegien logikaren mendean utziko genuke zerga-politika hori. Beraz, ezinbestekotzat jotzen dugu, unea iristean, euskal adminis-

trazioen zerga-ahalmenak ahalik eta sendoen egotea progresibotasunezko ikuspuntu batetik. Horregatik, korporazio handiek gure lurraldeetan ordaindu beharreko zerga-karga blindatzea proposatzen dugu, gehien duenak gehiago ordain dezan. Eta bistan da ez dagoela enpresa transnazionalak baino negozio-bolumen handiagoa duen inor.

Beraz, kapital-errenten aldeko mesede-tratua eta zerga-ihesarekiko permisibitatea bukatu behar dira, eta buelta eman behar zaio sozietateen gaineko zergak azken urteotan bizi izan duen beheranzko joera nabarmen horri, inbertsio transnazionala erakartzearen tasa efektiboak jaisteko lehian buru-belarri sartuta egon diren foru-aldundiek gidatutako bide horri. Foru-aldundiek bertan behera utzi behar dute, hizpide dugun alorrean, “alfonbra gorria” zabaltzeko beren politika hori. Horretarako, benetako zerga-ekitate baterantz aurrera-pausuak ematea ezinbestekoa da, irabazien, errenten eta ondareen zerga-eskala progresibo batean oinarritutako tributazioa bultzatuz.

Zentzu horretan, merkataritza-hitzarmenak indarrean sartzen diren unean, sozietateen gaineko zergak ahalik eta egoerarik sendoenean egon behar du. Horretarako, zera proposatzen dugu guk: Tasa nominalak igotzea eta zerga horren gaineko salbuespenak kentzea korporazio transnazional handien kasuan.

1.1.4. Ekintza

Inbertsioak erakartzeko politika atzera botatzea

Gure lurraldera heltzen den kapital transnazionalarentzat “alfonbra gorri” bat prestatzera bideratutako estrategia integralak gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira euskal administrazioen plangintza ekonomikoetan. Horren helburua euskal lurraldean finkatzeko prest dagoen inbertsio atzerritarra erakartzea da: enpresa multinazional handiek sektore industrialeko enpresetan partizipazioak erostea; ekonomia digitalaren sektoreko lehen mailako korporazioak Euskal Herrian lurreratzea; euskal hiriburuetan turismo-sektoreko inbertsio-fluxuak sendotzeko bide gisa, ekitaldi handiak eta nazioarteko kongresuak antolatzeari lehentasuna ematea, etab.

Kapital transnazionalak zenbat eta presentzia handiagoa izan euskal ekonomiaren sektore estrategikoetan, orduan eta mandamendu korporatiboen esanetarago egongo da. Handiagoa izango da, beraz, entitate hauek justizia pribatizatuko mekanismoetara jotzeko arriskua. Kapital multinazionalari gure lurraldean kontrolik gabe sartzeko aukera erraztea, edozein euskal administraziook —enpresa horien posizioa eta irabaziak, pixka bat bada ere, arriskuan jar litzakeen edozeinek— era horretako demanda bat aurkezteko aukerari bidea ematea da. Era berean, behin hitzarmen bat indarrean sartuta, handiagoa izango da —administrazioen ekimen-ahalmena geldiarazten duen “zero une” horren ondorioz— administrazio publikoek enpresa estrategikoetan parte hartzea eragozteko ahalmena, are gehiago partaidetza hori beste akziodun

transnazionalen interesen kalterako bada. Horregatik, berehala bota behar da atzera kanpoko inbertsioa erakartzeko politika horiek udaletxerik handienen eta, batez ere, diputazio eta gobernu autonomikoen estrategia ekonomikoan duten presentzia handitzeko joera hori. Halaber, ezinbestekoa iruditzen zaigu gure lurraldera iristen den kapital transnazional horren barneratze-nitxoak murrizten laguntzeko arauak ezartzea. Horretarako, neurri hauek hartzea proposatzen dugu:

- Udal-mailan, gaizki deituriko “elkarlaneko ekonomiako” enpresen presentzia **murrizteko arauak** ezartzea hainbat sektoretan, hala nola gure hirietako pisu turistikoaren alokairuan edo VTC ibilgailuetan (Bartzelonako Metropoli Barrutian, adibidez, udal-baimen berezi bat eduki beharra ezarri da, VTC lizentziaz gainera);
- **Deslokalizazioaren kontrako klausulak** ezartzea -zehapen-izaera handikoak- gure lurraldean finkatzen den enpresa transnazional batek erabil ditzakeen baliabide publiko guztiak (laguntzak, lurzoru-emakidak, errendimendu handiko zentroetan parte-hartzea, etab.) arautzen dituen arautegietan.
- **Alokairuen igoerari luzamendu bat** ezartzea, inbertsore handiak zein inbertsio-funtsak euskal higiezinaren sektoretik urrunarazteko eta, bidenabar, etxebizitza duin baterako eskubidea erdigunean kokatzeko.

1.1.5. Ekintza

Kanpoan diharduten euskal enpresek giza eskubideen nazioarteko esparrua errespetatzen dutela bermatzea, jarraipen-sistemak eta, hala badagokio, zigor-sistemak ezarriz

Hitzarmen horiek inpunitate osoko esparru politiko/juridiko bat sustatzea dute helburu, enpresa transnazionalen ekintzak eta interesak babeste aldera. Ildo horretan, enpresak nazioartekotzeko politikak, gaur egun, ez dituzte aintzat hartzen kanpoko euskal enpresen ekintzen inpaktuak, jarduera hauek sustatzeko parametroen artean. Ikusezintasun horri, bestalde, euskal enpresek beren merkatu-nitxoak zabaltzeko aukeratzen dituzten lurraldeetan gertatzen diren eskubide-urraketak (ingurumenaren, gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren alorrean) zigortzeko ahalmen eskasa edo hutsa gehitu behar zaio.

Egoera horri aurre egiteko, Enpresen eta Giza Eskubideen Euskal Zentroa sortzea proposatzen dugu. Zentro horren helburuetako bat euskal enpresen atzerriko jardueraren jarraipen sistematikoa egitea izango litzateke, batez ere egoitza nagusia gure lurraldean duten korporazio handiena. Horretarako, enpresek lekuan bertan eragiten dituzten inpaktuak aztertzeko pertsonal espezializatuaren prestakuntza sustatuko du, eta txosten bat argitaratuko du, urtean behin, euskal enpresek kanpoan giza eskubideak zenbateraino errespetatzen dituzten azaltzeko, baita beharrezkotzat jotzen diren kasu-azterketa guztiak egiteko ere. Txosten horietan jasotzen diren gomendioak lotesleak izango dira gobernuarentzat.

Beste alde batetik, Zentro horrek beste zenbait konpetentzia eta mekanismo garatuko ditu, bete beharreko parametroak betetzen ez dituzten euskal enpresei dagozkien zehapenak ezarri ahal izateko (erakunde horiek baliabide publikoak, hala nola diru-laguntzak, kontratazio publikoa eta abar eskuratzeko debekua barne) edota giza eskubideen urraketa-kasuak, ezagutu orduko, justizia arruntera ofizioz igortzeko.

Jarduera-lerroa 1.2.

Erdi edo erabat pribatizatu-tako esparruak berreskuratzeko eta publiko bihurtzeko prozesuetan aurrera egitea

Bigarren ekintza-lerro honetan, lurraldeentzat eta, ondorioz, kapitalarentzat estrategikoak diren esparruak (hala nola ondasun naturalak eta/edo zerbitzuak) berriz publiko bihurtzeko bidean lan egitea proposatzen dugu. Hitzarmen-bolada berri honen plan korporatiboen funtsezko parte diren merkantilizazio- eta pribatizazio-prozesuen itzulezintasun-mekanismoen aurrean, interes kolektiboa babestuko duten tresna instituzionalak sortzean datza ekintza-lerro honen gakoa. Hala, hitzarmenen klausulen arabera hitzarmen zehatz bat indarrean sartzeak “zero une” bat —hau da, sektore edo zerbitzu publikoen pribatizazioan atzera egiterik egongo ez den une bat— ezartzen badu denboran, ahalik eta esparru eta zerbitzu gehien berreskuratu beharko genituzke, lehenbailehen gainera, sektore publikoarentzat eta publiko/komunitarioarentzat, “zero une” hori iritsi baino lehen. Azken batean, hitzarmen

hauentzat hain garrantzitsua den “zero une” hori lurraldeen kudeaketa publikotik ahalik eta gertuen egotea da helburua.

1.2.1. Ekintza

Sektore estrategikoen jabetza eta kudeaketa publiko/komunitarioa bermatzea balio-kate osoan

Euskal administrazio publikoek, maila guztietakoek, ahalegin berezia egin behar dute pribatizaturiko esparru ekonomiko eta zerbitzu publikoak berriz ere sektore publiko/komunitarioaren esku uzteko, osorik edo zati batean azpikontrataturakoak barne, edota —dependentzia-arretan diharduten hainbat zentro asoziatuaren kasuan gertatzen den bezala— jada externalizazio egoera horretan jaio direnak barne. Hitzarmen bat indarrean sartzen deneko “zero une” hori behin iritsita, zerbitzu publiko eta esparru ekonomiko estrategiko gehienek esku publikoetan egon behar lukete, ez soilik titulartasunari dagozkionez, baita kudeaketari dagokionez ere. Izan ere, botere korporatiboak zulatutako zirrikitu oro zerbitzu publikoen merkantilizazioa sarrarazteko baliatu ahal izango du hitzarmen-politika honek, hainbat atzeraezintasun-mekanismu baliatuz horretarako. Erakundeak buru-belarri murgildu beharko lirateke, beraz, zerbitzuak berriro publiko bihurtzearen aldeko borroka horretan.

Ildo horretan, aipatua dugu jada ur-partzuergoen kasua: haien kudeaketa enpresa pribatuen mesedetan azpikontrataturata dago. Antzeko egoerak ikus daitezke beste sektore batzuetan: hondakin-bilketan, energia-hornikuntzan, edo garraioan, adibidez.

Horietan guztietan, espazio eta zerbitzuen titulartasuna eta kudeaketa berriro publiko bihurtzeko estrategia integral bat sustatu behar da: privatizazioak/azpikontratazioak lehengoratzeko ahalmen instituzionalak deuseztatzea helburu hartuta hitzarmen-bolada berriak bultzatzen dituen neurri horien aurrean, gure lurraldeak babestuko dituen estrategia integral bat, hain zuzen. Estrategia hori kalitatezko enplegu publikoa sortzeko xede garbi batetik inplementatu beharko da gero, azpikontratatako langileen subrogazioaren bidez. Zerbitzuen alorraz harago, premiazkoa iruditzen zaigu —euskal administrazioek ekonomian esku hartzeko dituzten tresna guztiak baliatuz— ekonomiaren sektore estrategikoetako enpresak esparru publikorako berreskuratzeko lana antolatzen hastea, enpresa horietako akziodunen sarean sartzera bideratutako politika baten bitartez. Bidenabar, korporazio transnazional handiek azken hamarkadotan irabazitako espazioa murriztea ere lortuko genuke horrela.

1.2.2. Ekintza

Alternatiba publiko/ komunitarioak sustatzera bideratutako aliantzak sendotzea eta erakundetzea

Nagusi den eredu ekonomikoan “itun publiko-privatu” deiturikoak hartzen ari diren garrantziaren aurrean —hau da, azpiegitura eta baliabide publikoak enpresa handien eskura uztea—, guk “publiko/komunitario” nozioaren alde egiten dugu apustu. Horrek zera esan nahi du: errentagarritasun, lehiakortasun eta irabazi asmo hutsaren logikarekin partzialki edo erabat hautsiko duten entitate eta pro-

zesu ekonomikoen bultzada estrategikoaren bidez egitura ekonomiko eta soziala aldatzea xede duen administrazio publiko bat babestea. Aliantza horiek ahalik eta gehien sendotzea eta instituzionalizatzea da helburua, hitzarmen bat indarrean sartzen deneko “zero unea” iristean alternatibak eraikitzeko prozesuak ahalik eta indartsuen eta blindatuen egon daitezten, prozesu horiek berekin dakartzaten merkantilizazio- eta gaitasun instituzionalak ezeztatzeko logikaren aurrean.

Euskal Herriko administrazio-maila guztietan inplementatu daitekeen logika bat da hori, udal-mailatik hasita autonomia-erkidegoaren mailaraino, zein bere eskumen-eremuan. Udal-esparrua oso emankorra izan da, eta da oraindik ere, zentzu horretan, Hernaniko edo Urduñako udalerrietako esperientziek, esaterako, erakusten diguten moduan. Kasu honetan, praktika mota hori ahalik eta gehien sistematizatzea da kontua, helburu zehatz hau begi-bistan hartuta, betiere: heldu den ofentsiba korporatiboaren ordezkari diren merkataritza-hitzarmenei eta haien “manamenduei” aurre egiteko prest dauden esperientzia sistematizatu publiko/komunitario ahalik eta gehien ereitea Euskal Herrian. Hona hemen praktika horien adibide batzuk:

- Elikagaien ekoizpenerako **lurren erosketa publikoa** sustatzea, baserri-tarrekin eta nekazaritza-sindikatuarekin elkarlanean;
- Banketxe **sozialki arduratsuak** indartzea eta euskal banka publiko baten eraikuntzan aurrerapausuak ematea;
- **Energia-iturri alternatibo**, iraunkor eta publikoak garatzeko proiektuak sustatzea, Euskal Herrian dihar-

duten kooperatibekin eta Ekonomia Sozial eta Solidariarako erakundeekin elkarlanean.

— Bizitzaren konponketarako espazio komunitario eta desmerkantilizatuak sustatzea (erabiltze-erregimenean oinarritutako jabetza kolektiboko etxebizitzentzako zoru zein espazioen lagapena, zaintza-sare kolektiboen sustapena...) Euskal sektore publiko-komunitario indartsu bat bultzatzea eta gotortzea **zaintzen eta bizitzaren sostenguari esparruan.**

— Ondasun naturalen **kudeaketa-eredu publiko/komunitarioetan** aurrera egitea.

— Euskal ekonomiaren **sektore estrategikoetan esku hartzeko tresnetaz** hornitu euskal sektore publikoa (energia, etb.), lurraldeko ehun ekonomiko komunitarioarekin aliantzak sustatuz, gardentasunetik eta parte hartze herritarretik.

— Enpresa eredu berri bat bultzatu, non **langileen parte hartze demokratikoa** indartzen den jardun ekonomikoaren gako desberdinekiko, produkzioa, inbertsioak eta irabaziak kasu.

Jarduera-lerroa 1.3.

Lan-baldintza duinak bermatzea, ahalegin berezia eginez baldintzarik kaskarrenetan dauden sektoreetan, hala nola zainketa-lanenean

Gorago esan bezala, hitzarmenek arauak beherantz bateratzea dute xede. Hori dela eta, sinatzen dituzten herrialdeek lan-eskubideen alorrean jasango dute inpakturik handienetarikoa. Hirugarren jarduera-lerro honek Lan-harremanetarako Euskal Esparru baten beharra ikusarazten digu: hura litzateke pertsona guztientzako enplegu duinak eta kalitatezkoak babesteko espaziorik egokiena. Horretaz gainera, zainketen eta zerbitzu-prestazioen alorra bereziki landu beharrekoa da, bere prekarietate-maila handiagatik eta pribatizazio-logikentzat interes berezia duen sektore bat izateagatik.

1.3.1. Ekintza

Lan-harremanetarako Euskal Esparru bat zehaztea, hitzarmen-bolada berriaren eraso desarautzailearen aurrean lan-eskubideak eta hitzarmen kolektiboak erdigunean jartzeko

Merkataritza-hitzarmen bolada berri honen helburu nagusietako bat lan-harremanak aldatzea da. Kapitalaren erreprodukzioaren egiturazko krisiaren aurrean, soldatapeko lanaren esplotazioaren areagotzea gero eta paper

garrantzitsuagoa ari da hartzen botere korporatiboak irabazi-nitxo berriak sortzearen jokatzeko ari den norgehiagoka horretan. Hala, soldata-kostuak beheratzea enpresek beren mozkin-marjinak mantentzeko aspalditik darabilten politika-bide emankor bat da. Hitzarmen-bolada berri honek, gorago genioen moduan, eskubideak zein erosteko ahalmena galtzearen logikaren sendoketa, kronifikazioa eta atzerazitasuna bultzatuko duten zenbait mekanismo jarriko ditu martxan, baita langile-klasearentzat lanaren prekaritatea arau bihurtuko dutenak ere. Horren ondorio nabarmenetako bat hitzarmen kolektiboen gaineko arriskua litzateke; izan ere, lan-harremanak arautzeko duten izaera zalantzan jarria izango litzateke, hitzarmen mota horiek berekin dakartzaten beheranzko bateratze-mekanismoen eta merkaturako sarbide-neurrien ondorioz.

Espainiako estatuaren esparruan, etengabeko lan-desarauketa ari gara pairatzen duela zenbait hamarkadatik hona. Tartean, sona handiko fenomenoak gertatu dira: Aldi Baterako Laneko Enpresen (ABLE) legalizazioa, adibidez, eta Zapateroren eta Rajoyren lan-erreformak, inflexio-puntu erabakigarriak, 2008ko ekonomia-krisia lehertu izana aprobeztatuz. Hori dena Euskal Herrian eduki beharreko lan-harreman eredu modu burujabe batean erabakitzen uzten ez digun marko autonomiko baten testuinguruan. Horren aurrean, Euskal Herrian diharduen kontrabotereko sindikalismoak erresistentzia- eta mobilizazio-marjina nabarmen bat garatu du, sindikalismo borrokariaren eragin-ahalmen hori gure lurraldean gauzaraziko duen Lan-harremanetarako Euskal Esparru bat errebindikatuz. Euskal erakundeek beren zeregina balitz bezala hartu behar lukete Esparru hori eraikitzeko lana, eta merkataritza-hitzarmen bat gaur edo bihar indarrean sartzeak lan-esparruan izango

litzatekeen ondorioetatik babesteko gotorleku bihurtu hura. Horretarako, bi puntu, gutxienez, hartu beharko lirateke kontuan:

- Lan-harremanetarako euskal esparrua defendatu gure lan-baldintzak erabaki ahal izateko eta, bolada berriko hitzarmenetako edozein indarrean sartu baino lehen, Euskal Herrian diharduen **lan-erregulazioaren goiko muga** ahalik eta goien kokatzeko, arauak beherantz bateratzeko mekanismoei aurre egin behar izaterakoan ahalik eta egoerarik onenean egon ahal izateko.
- Euskal Herriko esparru guztietan adostutako hitzarmen kolektiboei zentraltasuna ematea eta blindatzea

1.3.2. Ekintza

“Ekonomia berria” delakoaren alorreko enpresak, beren negozio-eredua “autonomo faltsuaren” irudian oinarritzen dutenak, euskal udalerrietan finkatzea eragozteko araudiak bultzatzea

Uber, Cabify, Glovo, Deliveroo eta beste enpresa batzuk enpleguaren eta lan-eskubideen prekarizazioaren abangoardian daude. “Elkarlaneko ekonomia” deiturikoaren mantuan azpian, enpresa horiek formalki autonomoak diren langileetan oinarritzen dute beren negozio-eredua. Horrek langile horiekiko bere

obligazioak bete behar izatetik libratzen du enpresa, langile horiek, praktikan, besteren konturako langileak direlarik.

XXI. mendeko kapitalismoaren ofentsibak ekarri dituen lan-harreman “izarrak” dira horiek —lan-harremanen ulerkeran erabateko jauzi kualitatiboa— eta hauek are sendoago errotzea da hitzarmen-bolada berri honen helburu estrategikoetako bat. Hala, enpresa mota horiek oso interesatuta daude merkataritza-hitzarmen horietan, behin indarrean sartuta lan-araudiak beherantz bateratzea bultzatuko baitute, lan-harreman eredu gero eta prekarizatuago eta esplotatzaileago bat bermatuz eta normalduz. Bestalde, kontratazio-politika horiek abiarazten dituzten araudiak a posteriori aldatzeak arazoa sor litzake inbertsioen segurtasun juridikoaren ikuspegitik, eta kontua arbitraje-auzitegi batean amai liteke. Horrenbestez, hitzarmen jakin bat indarrean sartzen deneko “zero une” hori iristean, ezinbestekoa izango da enpresa horiei aurre egiteko araudia ahalik eta blindatuena egotea, enpresa horien ingurunea ahalik eta gehien mugatzea eta era guztietako oztopoak jartzea: normatiboak, administratiboak, burokratikoak, politikoak edota irudi publikokoak.

Horretarako, administrazioek inplementatu beharko lituzketen neurri batzuk proposatzen ditugu hemen, era horretako entitateak gure lurraldean finkatzea eta sendotzea eragozte aldera:

- EAEko eta NFEko lan-ikuskaritza zerbitzuen estrategia koherente eta sistematiko bat zehaztea, enpresa horien iruzurrezko kontratazioak agerian jartzeko eta zigortzeko. Enpresa horiek oinarri hartzen duten “autonomo faltsuaren” generalizazioaren aurrean,

besteren konturako langile gisa beren eskubideetan babesa jaso nahi duten partikularrek eta organizazio sindikalek auzitegietara jotzeko aukera bultzatzea.

- **Lizentzia-kontzesioetan moratoria ezartzea** (VTC, adibidez, konpetentzia hori Sustapen Ministeriotik Autonomia Erkidegoetara transferitzeko proiektu bat dagoeneko baden neurrian) eta enpresa horiei euskal udalerrietan eta lurraldeetan jarduteko baimenak ukatzeko beharrezko araudia ezartzea.

1.3.3. Ekintza

Zainketak publikatzea eta demokratizatzea, zaintza-lanen desmerkantilizazio- eta desfamiliarizazio-estrategiak lortzeko bidean aurrera eginez

Zainketa-lanena izango da, segur aski, Hitzarmen hauen merkantilizazio-logikek gehien gutzizatzen duten alorretako bat. Bi arrazoi daude horretarako. Lehenik eta behin, zainketa pertsona guztien oinarritzko behar bat delako, guk, gizarte bezala, gizarte-erreproduzioaren krisia deritzonaren barruan, dagoeneko oker bideratzen ari garen behar bat. Bigarrenik, behar horri erantzuteko orduan, gure ereduak esparru pribatuan (familiaren gain) jartzen duelako pisu osoa, (bertako edo kanpoko) emakumeen gain bereziki, benetan dagoen eskariari aurre egingo dion sare publiko behar bezalako bat izan gabe eta, esparru pribatuan, zerbitzu-eskaintza “feminizatu” eta prekarizatu bat eskainiz.

Hala, hitzarmenek hondamendi handiagoa eragingo dute oraindik, zainketen inguruko beharrak asetzerantz bideratutako azpiegitura publiko horietan dagoeneko indarrean den suntsipen-politika horretan (diru-laguntza gutxiago, pribatizazio/azpikontratazio gehiago, prozesu horiek etorkizunean atzera eragiteko ezintasuna, etab.). Horrek, noski, zainketen "familiarizazio" eta "feminizazio" handiagoa ekarriko du ondorioz, egun nagusi den dominazio patriarkala indartuz eta areagotuz. Era berean, sektore honetan dagoen enpleguak —arrisku handian dagoeneko— bere baldintzak kaskartzen ikusiko ditu bai soldadari dagokionez bai eskubideei dagokienez, sektore honek hain berezkoa duen prekaritatea eta bere zati batean murgilduta dagoen ezkutuko ekonomia areago zabalduz.

Horri aurre egin nahi badiogu, hobe izango dugu gure gizartearen gaitasun publiko eta komunitarioen erresistentzia sendotzea eta blindajea gotortzea, hitzarmen horietako bat indarrean sartu baino lehen. Horretarako, honako hau proposatzen dugu:

— **Zainketa Zerbitzu Publikoen sarea indartzea** (mendekotasunarekiko arreta, haurtzaindegiak, etab.): egungo eskaintza eta bere unibertsaltasuna zabalduz; zerbitzuak kalitate-baldintza jakin batzuk betetzen dituela ziurtatuz; zerbitzu horien kudeaketa publiko baterako bidean pausoak emanez; eta sektoreko langileek lan-baldintza duinak izango dituztela bermatuz.

— Erakunde publikoek **zerbitzuak hitzartzeko eta kontratatze**ko eredu on bat garatzea, lan-baldintza duinak eskainiko dituen, nola kontratazio-pleguetan hala hitzarmen-baldintzak

ezartzeko orduan, betiere ziurtatuz enpresa-errentagarritasuna ez dela ezein kasutan ere zerbitzuak eta lan baldintzak okertzearen truke lortuko.

— **Etxeko enpleguaren baldintzak blindatzea**, besteak beste honako neurrien bitartez: ikuskaritza-tresnak indartu, kontratazioarako zerga-sustapena kendu, edota langileen borrorak zein forma kooperatibo edota elkarlanekoak sustatu.

— Administrazioan (gizartea bera eta administrazioarekin kontratu eta diru-laguntzen bidez harremanak ditzuten eragileak barne), barrurako zein kanporako harremanetan, **erantzukidetasun-politikak** sustatzea.

2 / Ardatza

KORPORAZIO HANDIEN GOBERNUAREN AURREAN, LURRALDEEN ETA PERTSONEN SUBIRANOTASUNAREN DEFENTSA

Jarduera-lerroa 2.1.

Herri-subiranotasuna eta herritarren ongizatea babestea, administrazio publikoek interes pribatuen aurrean bete beharreko zereginen ardatz nagusi gisa

Ekintza 2.1.1.

Gastu-araua ez betetzeko eta zor gorrotagarri eta ez-legitimoa ez ordaintzeko estrategiak zehaztea, herritarrekin batera

Ekintza 2.1.2.

Arbitraje-auzitegiak eta justizia korporatibizatua ez obeditzeko estrategiak zehaztea, herritarrekin batera

Ekintza 2.1.3.

Kapital transnacionalarentzat interes berezikoak diren eremuei dagokienez, herritarren partaidetzarako eremuak eta prozesuak zabaltzea

Jarduera-lerroa 2.2.

Beste administrazio batzuekin elkartzea eta estatu/eskualde-mailako eremuetan eragitea hitzarmen hauei aurre egiteko orduan

Ekintza 2.2.1.

Hitzarmenik gabeko Euskal Herri baten aldeko erakunde publikoen sarea sortzea

Ekintza 2.2.2.

Hitzarmenei aurre egiteko Euskal Estrategia bat zehaztea.

Jarduera-lerroa 2.3.

Hitzarmen hauek Euskal Herrian eta hirugarren herrialdeetan dituzten eraginei buruzko ezagutza eta informazioa zabaltzea, ikuspegi internazionalista batetik betiere

Ekintza 2.3.1.

Hitzarmenei buruzko eztabaida sozial, politiko eta mediatikoa zabaltzea

Jarduera-lerroa 2.1.

Herri-subiranotasuna eta herritarren ongizatea babestea, administrazio publikoek interes pribatuen aurrean bete beharreko zereginen ardatz nagusi gisa

Hitzarmenen helburuetako bat herritarren eta lurraldeen erabakitzeko gaitasuna —eta, beraz, subiranotasuna— urrunaraztea da, korporazioen aginduei aurre egitea ezinezko bihurtuko duen sare juridiko-administratibo bat ehuntzea. Horren aurrean, lehen lerro honetatik dei egiten diegu administrazioei hartu beharreko neurriak hartzeko, bi xede hauek betetze aldera: batetik, enpresa transnazio-nal zerbitzura dagoen konstituzio ekonomiko global honek Euskal Herrian diharduten erakunde publikoen kasuan hartzen dituen adierazpide nagusietako batzuen aurrean (zorra, zerga-austeritatea, arbitraje-auzitegiak) desobedientzia-estrategiak abiatzea; eta, bestetik, lurraldeari dagozkion gai guztien inguruan erabakiak hartzeko prozedurak herritarrengana hurbiltzeko baliagarriak diren partaidetza-prozesuak sendotzea. Horretarako, ezinbestekoa izango da erakundeen ahalmen subiranoak sendotzea eta herritarren agindu demokratikoari lehentasuna ematea, merkataritza-hitzarmen bat —edozein— indarrean sartu baino lehen zein ondoren. Hemen, botere korporatiboarekiko konfrontazio demokratikoa gauzarazteko borondate politikoak, nola herritarrenak hala erakunde-etan dauden indar politikoenak, lehen mailako garrantzia hartzen du.

2.1.1. Ekintza

Gastu-araua desobeditzeko eta zor gorrotagarri eta ez-legitimoa ez ordaintzeko estrategiak zehaztea, herritarrekin batera

Europar Batasuna kontrol-prozesu bertikal eta goitik beherako baten gailurra da, anti-demokratikoa eta jarduera instituzionalaren ahalmenak murrizten dituena, non bertako kide diren estatuei kontu publikoen kontrolaren bidez zerga-austeritatea inposatzen zaien. Prozesu horretan, goragoko hurrengo organismoak administrazioaren beheragoko organismoen aurrekontu-aukerak geldiarazten ditu, politika ekonomiko neoliberalaren eredu nagusiak ondoz ondoko inposizio-segida baten moduan gastu publikoa murriztea eta inbertsio eta zerbitzu sozialak gutxitzea ezartzean. Hala, Europar Batasuneko kide diren Estatuak beren gain hartzen dute gitik datorren subiranotasun-murrizketa hori, Espainiako estatua-ren kasuan konstituzioaren 135. artikulua-ren bidez eta administrazioaren beheragoko organismoen gastu-arauaren kortsea ezarritik. Eta xantaiarako tresna nagusia zorra da, eskubide-eta subiranotasun-murrizketaren zerbitzura dauden maila askotariko erakunde horien guztien argudio gustukoena: zor publikoaren ordainketa geure burua modu demokratiko eta subiranoan gobernatzen eta gehiengo sozialen alde egiten uzten ez digun tresna hertsatzaile betiereko gisa.

Nazioz gaindiko muntaketa hori merkataritza-hitzarmen bolada berri hau ezaugarritzen duten logiken parte da. Ez alferrik, Europar Batasuna da programa horren bultzatzaile eta defendatzaile nagusia, belaunaldi berriko

hitzarmenen ugaritze horren eragile nagusia ere baden bezala. Maila globalean inposatu nahi du dagoeneko “etxean” —denok ezagutzen ditugun ondorio negargarri horiekin— inplementatzen ari dena.

Hori dela eta, hitzarmenei aurre egiteko euskal agenda batek jarduera-parametro batzuk ere ezarri behar ditu, ezinbestez, fronte horretan. Horretarako, hau proposatzen dugu guk:

— Gastu-arauari buruzko estatu mailako araudia **ez betetzeko estrategiak** zehaztea. Euskal administrazioek (udalek, foru-aldundiek eta autonomia-erkidegoek), aurrekontuak prestatzeko orduan, alde batera utziko dute zor publikoa ordaintzeko lehentasuna, eskubide guztiak pertsona guztientzat bermatuko dituzte, eta uko egingo diote aurrekontuak gobernu zentralaren inposizioaren arabera birformulatzeari. Euskal administrazioek konfrontazio horri denboran eusteko eta estatuaren aldetik kontuak kontrolatzeko xantaiari men ez egiteko konpromisoa hartuko dute.

— Udalen, foru-aldundien eta autonomia-erkidegoen aldetik erakundeen zor **publikoa ikuskatzeko auditoria-prozesuak** bultzatzea, eta prozesuan gorrotagarritzat edo ez-legitimotzat identifikatu den zor-zatia ez ordaintzeko estrategiak sustatzea.

2.1.2. Ekintza

Arbitraje-auzitegiak eta justizia korporatibizatua ez obeditzeko estrategiak zehaztea, herritarrekin batera

Euskal erakundeek, maila guztietan (udala, aldundia, autonomia-erkidegoa), apustu politiko garbia egin behar dute arbitraje-auzitegiak —konpainia transnazionalen zerbitzura dagoen eta merkataritza-hitzarmen bolada berri hau sendotu nahian dabilen justizia pribatizatu hori— publikoki borrokatzeko. Botere korporatibo gero eta boteretsuagoak, inolako muga edo kontrol publikorik ez duen horrek, bere esku daukan tresna nagusietako bat borrokatzearen aldeko hautua egitera eraman behar gaitu horrek. Hori egitea borondate politikoko kontu bat da, beraz, beste ezer baino lehen.

Borondate politiko horrek konpromiso zehatz batzuk hartzera eraman behar ditu euskal erakundeak:

— Euskal Herriko administrazio publikoko botere legegilearen hiru mailetan aurkeztutako mozioen bidez, **arbitraje-auzitegiak erakunde anti-demokratikotzat eta ez-legezkoztat hartzea.**

— Espainiako Estatuak edo Europar Batasunak izenpetuta Euskal Herrian indarrean dauden **hitzarmenak salatzeko eta arbitraje-sistemetatik ateratzeko —egungoak zein etorkizunekoak—** estrategia bat sustatzea.

— Kontratazio publikoetan eta enpresentzako diru-laguntzak emateko edozein deialdi publikotan, justizia

pribatizatuaren instantzia horietara ez jotzeko konpromisoa hartzearen aldeko **klausula baztertzailerak** sartzea.

Desobedientzia-ekintza honek, botere korporatiboarekiko konfrontazioaren aldeko apustu honek, erakundeen eta herritarren artean aliantza inklusibo sendo bat egitea eskatzen du. Merkataritza-hitzarmenen botereari aurre egiteko prest dagoen erakundeak herritar-, gizarte- eta sindikatu-egitura kontzientziatu, sentsibilizatu eta mobilizatu baten inguruan antolatuta behar du egon. Ildo horretan, era horretako hitzarmenek eta arbitraje-auzitegiek berekin dakartzaten ondorioak ulertzeko eta desobedientzia-neurrien zuzentasuna eta beharrezkotasuna azaltzeko pedagogia-lana egitea funtsezkoa da.

2.1.3. Ekintza

Kapital transnazionalarentzat interes berezikoak diren eremuei dagokienez, herritarren partaidetzarako eremuak eta prozesuak zabaltzea

Hitzarmen hauen helburua garbi dago: administrazio publikoak botererik gabe uztea eta erabaki-eremu eta organo gero eta pribatizatuagoak, lurraldeetatik eta bertan bizi garen pertsonengandik aldenduagoak, sustatzea. Horri aurre egiteko, ezinbestekoa iruditzen zaigu, administrazioak bultzatuta egun indarrean dauden partaidetza-prozesu eta espazioak ikuspegi kritiko batetik aztertu ondoren, prozesu eta espazio horiek areago zabaltzea eta hobetzea.

Administrazioak (publikoa den oro) kolektiboki eskuratu beharreko espazio bat bezala ikusten ditugu guk. Eta, horretarako, berriz aztertu behar dugu nola ulertu izan den orain arte partaidetza, egungo formak —eskuorde-tuak eta profil baxukoak— berrikusi, eta beste metodologia, tresna eta espazio batzuetatik eraikitako politikak bultzatu. Gure ustez, prozesuak eraikitzeke orduan, ezagutzak ez luke ustez adituak diren pertsonen esku geratu behar. Aitzitik, modu kolektiboan eraiki beharko genuke, eta partekatu. Gainera, prozesu horietan, gehiago zabal eta askotariko baten partaidetza bermatu beharko genuke, eta gure bizitzaren arlo guztietara eta gizartea, politika eta ekonomia antolatzeke gure modura egokitutako proposamenak eta politikak eztabaidatu eta landu beharko genituzke denok batera. Gure ustez, herritar kritikoak eta ondo informatuak, erabaki-prozesuetan parte hartuko dutenak, prestatzea ezinbesteko baldintza da Hitzarmenei ganoraz aurre egiteko.

Lehentasunezkoa iruditzen zaigu partaidetza-prozesuak sustatzea esparru estrategikoetan eta (Hitzarmenentzat duten interesarengatik) premiazkoetan: lurralde-antolamenduaren, ondasun naturalen eta zerbitzu publikoen esparruetan, besteak beste.

Jarduera-lerroa 2.2.

Beste administrazio batzuekin elkartzea eta estatu/eskualde-mailako eremuetan eragitea hitzarmen hauei aurre egiteko orduan

Hitzarmenek kontra dauzkaten lurraldeak bakartzea eta ahultzea dute xede, horretarako jurisprudentzia pribatizatua eta hainbat zehapen mota sortuz. Hitzarmenak administrazioen erabaki-ahalmena eta ekintza-gaitasuna kontrolatzen saiatzen dira, eta haien xantaia-dinamikak hain eraginkorrak izatearen arrazoi nagusietako bat hau da: botere korporatiboaren presioa jasaten duten erakundeen artean elkarlaguntzarako sarerik ez egotea, alegia. Mehatxu horiek laster bete daitezkeela eta aurre egiteko beharrezko laguntza —laguntza egonkor sendoa— beste inondik helduko ez zaigulako sentsazio zorabigarria ezagutzea giltzarria da konfrontazio iraunkorreko logikak inplementatzeko zailtasunak ulertzeko. Horregatik, behar-beharrezkoa da toki- eta eskualde-mailako administrazioek estrategia bateratuak planteatzea eta estatu-edo eskualde-mailako alorretan eragitea.

2.2.1. Ekintza

Hitzarmenik gabeko Euskal Herri baten aldeko erakunde publikoen sarea sortzea

Euskal lurretan dauden hiru administrazio-mailetak (udal, foru-aldundi, autonomia-

erkidegoko) ahalik eta eragile instituzional gehien bilduko dituen sare bat sortzea proposatzen dugu, dagoeneko eratuta dauden sareak ere barne hartuko dituen —Udalbiltza, adibidez, udal-mailan—, hitzarmenik gabeko Euskal Herri bat lortzeko helburu nagusiarekin.

Horregatik, dei egiten diegu udalbatzei, foru-aldundietako Batzar Nagusiei eta EAEko eta NFEko Legebiltzarrei horren aldeko mozioak onartzeko eta proposamen horrekin bat datozen subjektu instituzional, politiko, sozial eta sindikalak egituratuko dituen euskal eremu bati atxikitzeko, ekimen politiko horri behar duen egitura, jarraipena eta edukia ematearren.

Sare horrek hitzarmenei aurre egiteko eta politikoki eragiteko Euskal Estrategia bat diseinatuko du, jarraian azalduko dugun moduan.

2.2.2. Ekintza

Hitzarmenei aurreko egiteko Euskal Estrategia bat zehaztea

Euskal Herrian diharduten administrazio publikoek bide instituzional batzuk dituzte politikoki eragiteko edo, gutxienez, estatu-mailako eta nazioz gaindiko foroetan —Europar Batasunaren barruan, gehienbat— beren ahotsa entzunarazteko. Ezinbestekoa da hitzarmenik gabeko Euskal Herriak gorputza hartzea espazio horietan, euskal eragile instituzional eta politikoek aurrera eraman beharreko eragin politikoko estrategia koherente eta sistematiko baten bidez.

Behin Euskal Herria hitzarmenik gabeko gune deklaratu, erabaki hori Espainiako estatuko

foro estrategikoetan babestu beharko da, Diputatuen Kongresuan, Senatuan, Presidente autonomikoen Konferentzian edota euskal indar politikoek eta instituzionalek parte hartzen duten beste edozein erakundetan. Era berean, merkataritza-hitzarmenak ez izenpe-tzeko posizio horrek ezinbestean agertu behar du estatu-mailako edozein negoziazio estrate-gikotan, hala nola Gobernu Presidentetzaren inbestiduran edo Estatuko Aurrekontu Orokorraren negoziazioan.

Europar Batasunaren esparruan ere, posizio horrek presente egon behar du bai Europar Parlamentuan bai gobernu autonomikoek ahotsa duten beste esparru guztietan: Kontseiluan eta Batzordean (Estatu kideen ordezkariak hartarako bideratu behar dituzten espazioen bidez) eta batez ere Europako Eskualdeen Batzordean (EAEko gobernuak ordezkari bat du bertan, eta Espainiako Estatuak ere eragozpen-gaitasun txikiagoa du).

Estrategia horrek, bestalde, euskal indar politikoen konpromisoa eskatzen du, datozen hitzarmenak onartzeko edo berresteko botazioetan ezezko botoa emateko konpromisoa, hain zuzen.

Estrategia hori euskal partaidetza politikoa eta instituzionala duten euskal mugaz haraindiko gainerako eztabaida-leku guztietara (iraunkor zein koiunturaletara) eraman beharko da gero.

Jarduera-lerroa 2.3.

Hitzarmen hauek Euskal Herrian eta hirugarren herrialdeetan dituzten eraginei buruzko ezagutza eta informazioa zabaltzea, ikuspegi internazionalista batetik betiere

Hitzarmen horiek beren alde erabiltzen duten tresna nagusietako bat informazioaren kontrola da, edukiei edo erabaki-eremuei buruz dagoen informaziorako sarbidea mugatuz edo eragotziz (ulermena oztopatzen duen hizkera mordoiloa edo teknizismoak erabiliz), edo hitzarmen horiek herrialde sinatzaileen aberastasun- eta enplegu-sorkuntzan duten inpaktu positiboa arrazoitzen saiatzen den informazio faltsua zabalduz. Beraz, ezagutza kritikoaren eraikuntza aurrera egitea eta hartarako sarbide publikoa bermatzea garrantzi handiko jardun-lerroak dira administrazio publikoentzat. Horretarako, hau proposatzen dugu: botere korporatiboak giza eskubideen alorrean eragiten dituen dinamikak eta inpaktuak aztertzeke, zabaltzeko eta haietaz sensitibilizatzeko espazio egituratu bat sortzea, merkataritza-hitzarmen bolada berri honek jokatzen duen paperaren, garatutako politiken eta sortzen dituen inpaktuen inguruko lanak zeregin funtsezkoa izango duen espazio bat, hain zuzen.

2.4.1. Ekintza

Hitzarmenei buruzko eztabaida sozial, politiko eta mediatikoa zabaltzea

Horretarako, besteak beste txosten independenteak egitea, eztabaida parlamentarioak bultzatzea, eta komunikazio/informazio materialak prestatzea proposatzen dugu, baita Hitzarmen horiek gure lurraldeetan eragiten dituzten inpaktu nagusiak ikusgai jartzea ere. Gure ustez, Enpresen eta Giza Eskubideen Euskal Zentroak berak bidera lezake zeregin hori, nahiz administrazio-maila bakoitzak erantzukizun zuzena izan gizarte-eztabaidaren sustapen horretan, gardentasun eta gobernu onaren irizpideak aintzat hartuta.